

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, KANTAURIKO URKIDETZAREN 2011KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 24an aho batez onartu zuen Kantauriko Urkidetzaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko ekitaldiaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz egin beharreko kontularitzako doiketak atzeman diren, Urkidetzaren Ondare Garbia 202.474 euroan gehituko luketenak.

Partzuergoak zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz 2017ko azaroan iraungitzekoa zen kontratu bat esleipendunak exekutatzeko jarraitzen duen txosten hau jaulki dugun datan.